

Pentsioen negozioa

Gizarte Segurantza publikoa bideraezina dela eta urte gutxi barru porrota ezagutuko duela baieztatu du David Taguasek, Zapatero presidentearen aholkulari ekonomiko berriak. Iritzi hori sostengatzeko bi arrazoi nagusi eman ditu: bizitza itxaropenaren igoera, eta hazkunde-tasaren apaltasunak etorkizunean lekarkeen kotizatzaile kopuruaren jaitsiera. Iragarpen hauek errepikatu dira noizbehinka 70eko hamarkadatik hona. 90eko hamarkadan Toledoko Itunak sinatu aurretik, banketxe handi baten bulego ekonomikotik egindako iragarpenaren arabera, Gizarte Segurantzaren sistemaren defizitak beronen porrota ekarriko omen zuen hamar urteren buruan. Hamabost urte eta gero Espainiako Estatuaren Gizarte Segurantzaren sistemak inoizko superabit handiena du egun. Azter dezagun proiektzio katastrofista hauek oinarri analitiko sendorik ote duten.

Pentsio publikoen banaketa ereduaren sistema langileek ordaintzen duten kotizazio sozialen bidez finantzatzen da eta ez da aurrekontu publikoa erabiltzen horretarako. Beraz, Estatuak Gizarte Segurantza publikoaren diseinuan autofinantzazioaren has-tapen murrizkorra hartzen da aintzat. Sistemaren finantza orekaren printzipio hau hauts liteke sarrerak gutxitu edota gastuak sobera handituko balira eta horrek sistema publikoaren bideraezintasuna ekarriko luke, pribatizazioaren aldekoek diotenez. Hauen arabera gastuen igoera emango da bizitza itxaropena luzatzearekin kotizazio urteak eta kotizazio bolumena handituko direlako. Horregatik beren ondorioetan jubilatzaileentzako adina atzeratzea proposatzen dute, nahiz neurri hori ez den Europako Batasuneko herrialde bakar batean hartu orain arte. Gastua apaltzeko beste irizpide bat pentsioen bolumena kalkulatzeko oinarria eta kotizazio urteak luzatzea da, honela kotizazio bolumen berdinatik gutxiago jasoko luke pentsiodunak.

Finantza orekaren haustura batez ere sarreraren murrizketaren ondorioz gauzatuko dela berraipatzen dute sistema publikoa suntsitzearen aldekoek. Hori iragartzen dute kotiza-



DANI BLANCO

tzaileen kopuruaren jaitsiera emango delakoan. Iritzi hau aurreiritzi oker baten gainean eraikita dago: jaiotza-tasaren jaitsierak langile kotizatzaileen kopurua murriztuko duelakoan. Haatik, azken urteetan egiaztatu den moduan, populazio aktiboa eta enpleguaren kopurua bide desberdinetatik gehi daiteke.

Bide bat populazio aktiboaren ehunekoa handitzea da, biztanlegoaren hazkundea kontuan hartzeke. Batik bat emakumearen aktibitate-tasa historikoki apala den herrietan jorratu ahal da ildo hau, horixe izanik Espainiako Estatuak egoera. Bertan azken sasoiaren emakumeen parte-hartzea populazio aktiboan igo den arren, emakumeen

aktibitate-tasa Suedian dagoenaren parera igoko balitz beste hiru milioi langile eta kotizatzaile gehiago leudeke. Bigarren lerroa da populazio aktiboa handitzea etorkinak erakarriz. Etorkinen etorrera garrantzitsua erabakiorra da Gizarte Segurantzak egun duen superabita gauzatzeko. Eta aukera horren emaitza positiboak etorkizun hurbilean ere jaso daitezke etorkinekiko ate irekien politika aplikatuz gero.

Pentsio publikoen arloko iragarpen ilun hauek funts handirik gabekoak izan arren, presio mediatikoari esker gizarteratuz doa pixkanaka, pentsio publikoen ordez kapitalizazio individualaren aldeko aukera pribatua ezinbestekotzat aurkeztuz. Finean, AEBetan bezala, bertako finantza-erakundeak aspaldian jabetu dira negozio-eremu esanguratsua eskuratu ahal dutela pentsio-fondo pribatuak orokortzearekin. Horregatik, orain arteko iragarpenen atzean negozio horretan interesa duten aseguru etxe eta banke-txeetako aztergileak egon ohi dira.

Oso esanguratsua da Taguasek jaunak orain arte BBVA banketxeak ikasketaz-erbitzuko zuzendariordearen postua bete izana. Gauzak honela datorenen urteko legegintzaldi berriaren pentsio sistema publikoaren berme gabezia nabarmena izango da popularrak zein sozialistak izan gobernua osatzen dutenak. Erronka hau aukera aparta litzateke Gizarte Segurantzaren euskal sistemari buruz buru heltzeko. ■



Pensio publikoen arloko iragarpen ilun hauek funts gabekoak izan arren, presio mediatikoari esker gizarteratuz doa pixkanaka, euren ordez kapitalizazio individualaren aldeko aukera pribatua ezinbestekotzat aurkeztuz